3 GIPUZKOA

# Mendatako ur-jauzia



URA
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

0,5 km

20 min

Udalerria:
**Deba**

Hurbileko herria:
**Itziar/ Itxaspe**

Ibaia:
**Mendata**

MIDE 4

Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo. Ez dago arazorik erorketa terrazaraino. Marearteko zabalgunera jaistea konplikatua da

EZ

↑ 105 m ↗ 2 m

↓ 23 m ↘ 86 m

**MENDATAKO UR-JAUZIA**




## Ingurumen-garrantzia

Itsasoak etengabeko higatzen ditu kostaldeko magalak eta, horren ondorioz, itsasora bat-batean erortzen diren zenbait haran eta erreka zintzilik geratzen dira.

Ikuskizun geologikorik handienetakoa da: historia geologikoaren milioika urte itsasoaren jarduerak estratu geologikoetan agerian utzita. Gainera, Mutriku, Deba eta Zumaia arteko marearteko zabalguneak interes biologiko handia du, bai itsasoko floraren aldetik, alga espezie ugari dituena, bai harkaitzetako substratuan itsatsita bizi diren fauna-espezie anitzen aldetik.







# Mendatako ur-jauzia

## Non dagoen eta nola heldu

Mendata errekaren ur-jauzia Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ipar-mendebaldeko koadrantean, Debabarrena eskualdean, Zumaia eta Deba bitarteko kostaldean, Deba udalerrian.
GI-3291 errepidetik hel gaitezke bertara, Itxaspe kanpinerantz hartuta, eta gero Mendatako marearteko zabalgunerantz.
“Mendatako marearteko zabalgunea” adierazten duen bidegurutzetik 400 bat metro egindakoan, hormigoizko pista bat hartuko dugu, eta aurrerago aparkaleku txiki bat dago eskuinean eta baita (PR-GI-5001, Sakoneta) adierazlea ere.
Puntu hartatik , oinez hasiko gara, itxitura bat gurutzatuta, hondartzara daraman pistatik.
250 bat metro ibilitakoan utziko dugu pista hori eta zelai bat gurutzatzen duen bidexka bat hartuko dugu ur-jauzira heltzeko.
Marearteko zabalgunean ur geza gaziarekin bat egitea ikusgarria da.
Itzulia bide beretik egingo dugu.
Edozein urtarota egin daiteke bisitaldia, baina euri-sasoian gozatuko dugu gehien ur-jauzia.

Deskargatu ibilbidea:

KML

GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:

Wikiloc

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

# Mendatako ur-jauzia


















# Mendatako ur-jauzia

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA











# Mendatako ur-jauzia

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA













